



IRAGARKIA

Alkateak 2024ko abenduaren 19an emandako dekretu baten bitartez Kirol Zerbitzuko Ohorezko Abonatu Txartelaren Saria Arautzeko oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen da:

KIROL ZERBITZUKO OHOREZKO ABONATU TXARTELAREN SARIA ARAUTZEKO OINARRIAK

1.- Xedea

Xedea hau da: 2024an hainbat herritarrek kirolaren alde egin duten edo aurretik egin izan duten lana eskertzeko, edota kirol arloan lortutako emaitzak saritzeko, Bergarako Kirol Zerbitzuko "Ohorezko Abonatu Txartela" izeneko sariak ematea, oinarri hauei jarraituz.

2.- Sariak emateko aplikatuko diren irizpideak

Sariak emateko honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- Ohorezko txartela proposatu eta erabakitzean, Bergaran kirol arloan egiten den ekarpena baloratuko da: kirolari, entrenatzaile, zuzendaritza-kide, sustatzaile, epaile...
- Sariak emateko orduan ondoren zehazten diren irizpideak baloratuko dira; eta arlo bakoitzean, meritu gehien duenari gehieneko puntuazioa emango zaio eta gutxien duenari puntu bat:
 1. Kirol merituak: 20 puntu gehienez.
 2. Emandako denbora-dedikazioa: 20 puntu gehienez.
 3. Generoa: Emakumea izateagatik, 5 puntu.
 4. Inklusibitatea: Kirol egokitan lan egiteagatik, 5 puntu.
 5. Kirol modalitatea: Minoritarioa izateagatik, 3 puntu.
 6. Adina: 50 urtetik gorakoa izateagatik, 3 puntu.
 7. Hainbat kirol modalitatetan aritzeagatik, 3 puntu.

3.- Sari-proposamenen egilea eta horretarako epea

Edozein herritarrek edota entitatek aurkeztu ahal du proposamena. Ez da onartuko pertsona fisikoek norberaren burua eskaintzea saria jasotzeko.

Proposamenak, jarraian jasotzen den inprimakia erabilita, 2025eko urtarrilaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira, bai Udaletxeko Bergararren Arretarako Zerbitzuan (BAZ), bai Agorrosinen, bai Udalaren web-gunearen bidez (*Begarako Kirol Zerbitzuko "Ohorezko Abonatu Txartela" emateko proposamena*).

Proposamena egiterakoan, zehaztu egin behar dira hautagaiaren izen-abizenak eta baloratuko diren arloei buruzko informazioa: merituen azalpena, emandako denbora, kirol modalitatea/k, argazkia, komunikabideetan argitaratutako informazioa...



Proposamenak modu egokian aurkezten dituztenen artean, Agorrosinerako hiru hilabeterako banakako abonua oso bat zozketatuko da.

4.- Sariak emateko prozedura

Epaimahaiak, jasotako proposamenak baloratuta, betiere arestian aipatutako irizpideen arabera, ohorezko txartelarekin saritutako pertsonen zerrenda proposatuko du.

Epaimahaikideak:

- Olatz Manuel, Bergarako Udalean zinegotzia.
- Kepa Sebal, Bergarako Udalean zinegotzia.
- Nerea Agirrezabal Urrutia, 2024. urtean ohorezko abonuekin saritua.
- Ritxar de Goñi, 2024. urtean ohorezko abonuekin saritua.
- Iñaki Ugarteburu, Kirol Zerbitzuko burua.

Ohorezko txartelaren jabeak Kirol Zerbitzuko banakako abonua osoa dohainik izango du 2025eko 12 hilabeteetan.

Gehienez 5 txartel-sari banatuko dira. Otsailean erabakiko da zeintzuk izango diren urteko txartelarekin sarituak, eta horren berri emango da udaleko web-orrian.

Pertsona berak ezin izango du urtebete baino gehiagotan ohorezko txartela lortu.

5.- Datuen babesa

Sari banaketa honetan eskuratutako datu pertsonalak Bergarako Udalaren ardurapean tratatuko dira eskaera izapidetu ahal izateko. Indarrean dagoen araudiak aitortutako eskubideak erabili ahal izango dira helbide honetara zuzenduta: Bergarako Udala, San Martin Agirre plaza 1, 20570 – Bergara. Informazio osagarria eskuragarri dago Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan (www.bergara.eus/RAT). Tratamendua: 1905

Bergara, 2024ko abenduaren 19a
Alkateak



ERANSKINA

Nor proposatzen duzu OHOREZKO ABONATU TXARTELA jasotzeko?

Ohorezko txartelarekin saritzeko proposatzen den pertsona edo taldea:

Kirol modalitatea:

Merituak:

Egindako merituen azalpena:

Emandako denbora-dedikazioa:

Aritzen den modalitatea edo modalitateak:

Bestelako informazio osagarri interesgarria:

Komunikabideetan argitaratutako informazioa:

Hautagaiaren argazkia bidali.

Fitxategiek 2 MB baino gutxiago izan behar dute.

Baimendutako fitxategi motak: gif, jpg, jpeg, png, pdf, doc.

Zure izena eta bi abizenak: *

NAN zenbakia: *

Helbide elektronikoa:*

Telefonoa: *

Saritzea proposatzen duzuna talde bat balitz, talde horretako kide zara?

Sari proposamen hau egiten duen pertsona jakitun da udalak eskuratutako datu pertsonalak Bergarako Udalaren ardurapean tratatuko direla, eskaera izapidetu ahal izateko. Indarrean dagoen araudiak aitortutako eskubideak erabili ahal izango dira helbide honetara zuzenduta: Bergarako Udala, San Martin Agirre plaza 1, 20570 – Bergara. Informazio osagarria eskuragarri dago Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan (www.bergara.eus/RAT).
Tratamendua: 1905

Data eta firma